

xinple!

EUSKARA



## AGOIZKO UDALA

19. zenb. 2020ko uztaila

### ZERBITZUAK

Udaletxea 948 33 60 05

Euskara Zerbitzua 948 33 65 65

Kultur Etxea 948 33 66 90

Cederna Garalur 948 33 63 37

Oinarrizko Gizarte Zerbitzua 948 33 40 95

Liburutegia 948 33 64 53

San Migel Ikastetxea eta Institutua 948 33 63 09

Bisitaldi gidatua Elizara 637 44 81 07

Dya 948 33 60 65

Suhiltzaile Boluntarioak 948 33 65 00

Udal Pilotalekua 948 33 61 64

Kirol Gunea 948 33 67 06



### AURKIBIDEA

- UDALAK HERRIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO KANPAINA EGIN ZUEN  
TOKIKO INBERTSIOEN PLANAREN BARNEKO ERABAKI ASKEKO FUNTSEN BANAKETA ZEHAZTU DA (2020)
- KONTUAK, ARGIA ETA GARDEN
- AGOITZEK, ARTZIBARREK, LONGIDAK ETA OROTZ-BETELUK ITOIZEK AGINDUTAKO ORDAINA ESKATU DUTE BERRIRO
- KARRIKA BERRIA OINEZKOENTZAT JARRI DA UDA OSOKO ASTEBURUETAN  
AGOITZEK BAT EGIN DU NAFARROA EZAGUTU SAREAREKIN  
TASA ETA ZERGA KOBRAZEA
- ONETSITA, ELIZAK MODU BIDEGABEAN IMMATRIKULATUTAKO ONDASUNEI BURUZKO MOZIOA  
ANIMALIAK EDUKITZEKO ORDENANTZARI BURUZ  
ELIKAGAI-BANKUAREN BANAKETA
- HAUSPOTU, HERRIAK INDARBERRITZEKO  
'OHOLTZARA SALTO A ESCENA' EGITASMO BUKAERAKO JAIA
- MARTXOAREN 8ARI BURUZKO AGERPEN INSTITUZIONALA  
EMAKUMEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK
- AGOITZ, KLIMA ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNARI ATXIKIA  
IRATI HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA
- LEGEZ KANPOKO HONDAKINDEGIAK  
IRATI TXANPONA, ADIBIDE NAZIONALA  
UDAL DERMIOKO IBILBIDEETAN BIDEZIDORRETAN MOTORREN JOANA-ETORRIA ERAGOZTEKO OZTOPOAK
- EL IRATI S.A. ERAKUSKETA, "CONOCER NAVARRA" ALDIZKARIAN  
NAFARROAKO ARTXIBATEGI OROKORRAK AGOIZKO UDALEKO 1563.ENEKO AGIRI BAT ERRESTAURATU DU
- ONARTUTA, TALDE KULTURALEKIN SINATZEN DIREN HITZARMENAK ETA BESTE ERAKUNDE BATZUEZAKO LAGUNTZAK  
AGOITZEK INAUTERIAK OSPATU DITU  
SANISIDROAK DESBERDINAK IZAN DIRA
- AOIZ NIRE LEIHOTIK  
NAFARROAKO ANTZOKI SAREAREN AURKEZPENA  
KULTUR BALANTZEA
- ETXALDETIK EUSKARALDIRA  
ERA ETA ELAIDE, INOIZ BAINO AKTIBAGOAK  
TXIKI XIMPLEI, ZAINDU DEZAGUN HAURTZAROA, ZAINDU DEZAGUN ORAINA ETA ETORKIZUNA  
SAN MIGEL BERRIAK BUTAKAK ESTREINATU DITU  
AGOIZKO UDALA EUSKAL JAI BERRI ERREMONTTE FUNDAZIOKO KIDE EGIN DA

# ximple!

Oharra: Aldizkariko erredakzio kontseilua Udaleko alor eta batzorde guztietako zinegotziek osatzen dute eta udal teknikarien eta garapeneko agentearen laguntza dute. Horiak aukeratu eta idatziko dituzte zenbaki bakoitzean argitaratuko diren testuak.

## UDALAK HERRIKO MERKATARITZA SUSTATZEKO KANPAINA EGIN ZUEN

Bizi genuen konfinamenduak gizartean eragin zuen eta aldarazi zituen gure eguneroko errutinak, harremanetan jartzeko era... eta baita kontsumo-ohiturak ere. Egun horietan, ilara handiak ikusi genituen Agoizko janari dendetan, aspaldian ez bezala, herrian erosteko ohitura galdu delako. Izan ere, gaur egun gure herriko merkataritza ez da erreferentzia lruñera joan eta saltoki handietan erostea nahiago duten bizilagun askorentzat.

Egoera berri honetan, merkatariek pozik agertu ziren salmentekin, nahiz eta egun horietan oso nekatuta bukatu. Baina inork ez bezala jasan zuten gaixotasunaren eragina, lehen lerroan egotea egokitu zitzaizkien funtsezko lanbideetako bat zelako, eta egunero bizilagunen beharrei erantzun behar zirelako. Beraz, merkatariek izan dira gure herria ZAINTEA egokitu zitzaizkien horietakoak.

Agian, konfinamenduak gauza asko birplan-tearazi dizkio kontsumitzaile bati baino gehiagori, besteak beste, herrian dendak edukitzea zer onurak dituen norberarentzat eta herriarentzat. Bestalde, merkatariek bezeroak fidelizatzeko edo negozio-modu berriak ezartzeko aukera berri izan dute salbuespeneko egoera honetan.

Udalak ekintza bateratu bat bultzatzeko garaia ikusi zuen, tokiko merkataritzaren eta kontsumoaren lana balioesteko eta herria egiteko beharra eta onurak azpimarratzeko, olatua pasatakoan, bakar batzuek badira ere une txarrean arreta eman zieten pertsonari

## TOKIKO INBERTSIOEN PLANAREN BARNEKO ERABAKI ASKEKO FUNTSEN BANAKETA ZEHAZTU DA (2020)

Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordeak zuzenketa bat onartu zuen, erabaki askerako 2020ko Tokiko Inbertsioen Planeko 5 milioi euroen banaketa zehazten duena.

Nafarroako 212 udalerrietako bakoitzak biztanle kopuruaren arabera zehaztutako kopurua jasoko du. Hala, Agoitzek 26.000 euro jasoko ditu, inbertsioak egiteko soilik erabili ahaliko dituenak.

Gogoratu behar da Tokiko Inbertsioen Plana Nafarroako Gobernuak tokiko erakundeekin duen lankidetzaren ekonomikorako tresna dela. Hiru jardueraren ildotan banatzen da: Foru exekutiboak proposatutako inbertsioak, tokiko erakundeek beraiek ezarritako ildoen arabera egindako tokiko programazioa eta udalek eta kontzejuek beren beharren arabera erabakitzen dituzten erabaki askeko bestelako inbertsioak.




erosten jarrai diezaieten.

Baina Agoizko merkataritzak ahalmenik ez duenez inolako ekimen komunik artikulatzeko, are gutxiago une horietan, udala izan zen zaintzaren ideien inguruko kanpaina baten bultzatzailea: elkar zaintzaren beharra, nori zaintzen gaituen balioa jartzea, gure herria zaintzea, gure etorkizuna zaintzea.

Kanpainaren irudiak gure burua zaintzeko beharri erantzun zion, nori zaintzen gaituen nabarmentzeko, gure herria zaintzeko, gure etorkizuna zaintzeko. Mezuak: ZAINDU DEZAGUN ELKAR, ELKARREN PREMIA DUGU.

Kanpaina honek bi fase izan zituen. Lehenengo konfinamendua indarrean zegoen garaian garatu zen. Kartel koloretsu baten bidez mezu positiboak eman ziren, bizitzaren genituen sentimenduekin lotutakoa, jendearen arreta lortzeko eta haien bihotzera ailegatzeko. Kartelak Agoizko dendetan jarri ziren, baita herriko hainbat tokitan ere. Udalak kanpaina hedatu zuen sare sozialetan, web orriaren, udal buletinaren, whatsappen eta APPren bidez.

Kanpainaren bigarren fase bat jarriko da martxan Agoizko gainerako saltokiek, ostalaritzak eta zerbitzuek normaltasunez funtzionatzen dutenean. Kanpainaren mezua aldatuko da, baina jatorrizko ideiarik eutsiz. Agoitz izanen da zaindu beharreko pertsona nagusia. Horrela, ZAINDU DEZAGUN ELKAR, ELKARREN PREMIA DUGU baztertu eta ZAINDU DEZAGUN AGOITZ, ELKARREN PREMIA DUGU izanen da lema. Horrela, zaintzaren ekintza herri osora zabaltzen da, hiriko merkataritza/ostalaritza/zerbitzuak/industria bezeroak leialtzen saiatuz.



### Cuidemos Aoiiz Zaindu dezagun Agoitz

Nos necesitamos • Elkarren premia dugu





## KONTUAK, ARGIA ETA GARDEN

### 2019KO KONTUAK POSITIBOAN ITXI DIRA

Azken 8 urteetan egin dugun bezala udalaren kontuak ezagutzera emateko ekitaldi publikorik egiterik ez dagoenez, aldezkarri honen argitalpena aprobetxatzen dugu Agoizko herri osoari 2019ko ekitaldiko kontuen berri emateko.

Joan den ekainaren 7an, Agoizko Udalak 2019ko ekitaldi ekonomikoko kontuak itxe onartu zuen osoko bilkuran, eta baita Kanpandoa elkarte publikoaren eta Mariano Garcia Musika Eskolaren Patronatuaren zenbakiak ere.

Sarrera-gastuen balantzeak 60.888,53 euroko saldo positiboa utzi digu, eta hori kopuru ona da udalarentzat. Balantze positibo horrek baikor sentiarazten du udala 2011tik ekarri dugun bilakaera ekonomikoari dagokionez. Aurreko ekitaldia 10.667,08 €-ko saldo positiboarekin amaitu zen, beraz, joera, argi eta garbi, ona da. Hala ere, kontuz ibili behar dugu zifrari dagokionez; izan ere, oso positiboa izan bada ere, tokiko egoera ekonomikoa kezkarria da.

2019ko ekitaldian, 3.356.070,28 €-ko eskubide aitortu garbiak (diru-sarrerak) eta 2.973.042,93 €-ko betebeharrak aitortu garbiak (gastuak) izan dira. Hasiera batean, balantzea 383.027,35 eurokoa da. Kopuru horren arra-



zoia da 322.138,82 €-ko finantziario-desbideratze positiboa eman dela, Nafarroako Gobernuak argiteria publikoa aldatzeko eman zigun interesik gabeko maileguetatik. Mailegu hori obra guztiak amaitutakoan hasiko

gara ordaintzen, eta hamar urtean amortizatuko dugu, interesik gabe, lehen aipatu dugun bezala. Diru-sarrerari kopuru hori kentzen badiogu, 60.888,53 euroko zifra positiboa uzten digu, hasieran aipatu dugun bezala.



### DIRUZAINZTA OROKORRA

Diruzaintzako gerakinari dagokionez, negatiboa izaten jarraitzen du, zehazki -94.927,41 € (argien mailegua kontuan hartu gabe), eta horrek muga bat dakarkio udalari aurrekontuan (onartu ondoren) aldaketak egiteko orduan. Zifra gorri hori poliki-poliki murrizten ari bada ere, oraindik bide luzea dugu egiteko.

Udalaren zor biziak ere behera egiten jarraitzen du. 2019an zehar, guztira 116.990,67 € amortizatari dira aktibo ditugun maileguetatik: epaitegiko


eraikina, zentro hidrotermala eta 2015ean eta 2018an, Nafarroako Gobernuak eta Itoiz fundazioak aurreko legegintzaldietan ordaindu ez zituzten konpromisoari aurre egiteko hartutako maileguak. Zor horiek udalaren gastu arruntari aurre egitea ezinezko egin digute.

2019ko abenduaren 31n, udalerraren zor bizia 621.047,08 eurokoa zen, duela lau urte baino 200.000 euro txikiagoa. Udalaren gastu arruntari aurre egiteko lehen aipatutako 400.000

eta 120.000 euroko maileguak eskatu baziren ere, zorra 2011. urtean udalera iritsi ginenean zegoena baino askoz ere murriztagoa da.

KONTZEPTUA	EKITALDIAREN ITXIERA
Aitortutako eskubide garbiak	3.356.070,28 €
Aitortutako betebeharrak	2.973.042,93 €
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>393.027,35 €</b>
<b>DOIKUNTZAK</b>	
Finantzaketa positiboaren desbiderapena (argiteriaren mailegua)	322.138,82 €
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA (DOITUA)</b>	<b>60.888,53 €</b>

### ZOR BIZIAREN GRAFIKOA



Ekonomia hobetze bidean dagoela agerikoa bada ere, udalak oraindik zailtasun handiak ditu gastuak ordaintzeko, likidezia falta dela eta. Oso atzeratuta dago ordaintzekin, azken bi urteetan gutxitzen eta nabarmen murrizten ari badira ere, oraindik zama handia delako.

Hurrengo taulan udalaren urteko gastu eta diru-sarrera arruntenak ikus daitezke.

KONTZEPTUA	SARRERAK	GASTUAK	BALANTZEA
ZERGAK	890.542	-	<b>890.542</b>
TOKIKO OGASUNEN FUNTSA	785.593	-	<b>785.593</b>
LANGILEAK	-	795.563	<b>-795.563</b>
KANPONDOA (udalaren ekarpena)	-	216.892	<b>-216.892</b>
MUSIKA ESKOLA (udalaren ekarpena)	-	64.700	<b>-64.700</b>
KULTUR ETXEA	15.603	123.869	<b>-108.266</b>
IZAGA OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA	3.381	67.338	<b>-63.957</b>
0-3 URTEKOENTZAKO HAUR ESKOLA	154.967	241.421	<b>-86.454</b>
MAILEGUAK	-	116.990	<b>-116.990</b>
GASTU ARRUNTA (argia, gasa, gasolioa...)	110.000 gutxi+-	200.000 gutxi+-	<b>-90.000 gutxi+-</b>

Taulan ikus daitezkeen bezala, udalaren eguneroko funtzionamendua gastu handia dakar, eta horrek diru-sarreraren eta gastuen balantzea oso estu gelditzen da. Hori dela eta, udalak eskuak lotuta dauzka, proiektu berririk bultzatzeko.

Aurretik, pasa den urteko balantzeari buruz, zehazki jokatu beharra aipatu da. Izan ere, balantzea positiboa izan da diru-sarrera asko izan direlako atzeratutako eta eguneratu zergengatik, JEZ-a (Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga) kasu, eta baita Nafarroako Kanaleko Zentral Hidroelektrikoaren kontribuzioa kobratzea lortu delako. Horregatik, bada, zifra irudikeria baino ez da.

### EPE LABURRERAKO HELBURUA

Aurreko bi legegintzaldietan lan handia egin da gastua eta zorra murrizteko, horretarako ekin-tza eta ekimenen ugari bultzatuz, eta orain zaila izan da gastua gehiago doitzea. Hala ere, Kanpandoko gerentea azterketa sakona egiten ari da, instalazioaren energia-gastua murrizteko.

Gastuari are gehiago eusteko ditugun zailtasunak direla eta, ekonomia hobetzeko urrats berririk eman nahi badugu, ganoraz eta adimenez jokatzera eramaten gaitu. Nafarroako Gobernuaren ekarpen ekonomikoa handitzea da oraingo gure borrokaren ardatza; izan ere, batetik, eskualde osorako funtsezko zerbitzuak eskaintzen ari gara eta, bestetik, Itoiz-Nafarroako ubidea azpiegitura jasaten dugu, Nafarroako zati handi batek azpiegitura horren onura jasotzen ari den bitartean.

Udalak Agoizko egoera ekonomikoa hobetzeko trinko lan egiteko konpromisoa du, eta gure esku dagoen guztiari ekinen diogu Nafarroako Gobernuaren aldetik finantzaketa hobea lortzeko, eta, aldi berean, azken urteetan mantendu dugun euste-ildoarekin jarraituko dugu.





## AGOITZEK, ARTZIBARREK, LONGIDAK ETA OROTZ-BETELUK ITOIZEK AGINDUTAKO ORDAINA ESKATU DUTE BERRIRO

2014an, Itoizko urtegiak eta Nafarroako ubideak kaltetutako herrietako alkateak Nafarroako Parlamentura joan ziren, erakundeek beren gain hartutako konpentsazio konpromisoak ez zirela gauzatu salatzeko. Sei urte geroago, Agoitz, Artzibar, Longida eta Orotz-Beteluko alkateak berriro joan dira Nafarroako parlamentura Lurralde Kohesiorako batzordeko lan-saio batera, aldarrikapen berberarekin: ez dira jasotzen ari Itoizko urtegia azpiegitura jartzeagatik hitzartutako konpentsazioak; izan ere, azpiegitura horrek eremuko arazo estrukturalak areagotu ditu, Nafarroako beste eremu batzuetan aberastasuna sortu duen bitartean.

Ángel Martín Unzué Agoizko alkateak gogorazi zuenez, Nafarroako Itoitz-Ubidea Fundazioak (Nafarroako Gobernuak, Ebroko Ur Konfederazioak eta inguruko udalek osatua)

ko programa bat prestatu zen, bete ez dena. Oraindik egiteke daude jarduketa eta proiektu asko, bai desagertutako Fundazioak egin beharrekoak, bai Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ministerioen finantzaketarekin egin beharrekoak, guztira 28 milioi eurokoak.

Ángel Martín Unzué azaldu zuen badaudela Itoizko urtegitik behera azpiegituraren onurak jasotzen dituzten eragileak, Nafarroako ubideari esker «aberasten» jarraitzen dutenak. Baina, bitartean, Nafarroako lurraldeen arteko elkartasuna ez dela gauzatzen ari salatu zuen, eremu horri «prekarietate sozioekonomikoa» eragiten zaiolako. Horregatik, hartutako inbertsio-konpromisoak betetzea eskatu zuen; izan ere, biztanleak galtzen ari den eremua da, gaur egun 7,7 biztanle ditu kilometro koadroko, eta Europako estanda-rren arabera, 12,2 biztanle izanez gero alarmak pizteko moduko da. Ildo

razi zuen. Itoizko urtegiaren tamainako urtegi batek 700.000 euro inguru tributazioa ekarriko lioke luke Estatuko edozein toki entitateri; Nafarroan, ordea, 180.000 euro baino ez. Hori dela eta, araudia aldatzeko eskatu dute, «Gaur egun legeak egiten ari direlako CHEK gutxiago ordain dezan».

Ángel Martín Unzué gogora ekarri zuen duela sei urte Sustapen batzordearekin lan saioa. Bertan agerian utzi zen eskualdeko prekarietate sozioekonomikoa eta konpentsazioa tresna bat izateko beharra ere; baina Nafarroako Gobernuak oraindik ez du mugimendurik egin. Orduan ere alderdi politiko guztien aho bateko atxikimendua jaso zuten; orain, ordea, laguntza hori egiazkoa izatea eta nolabait artikulatzea nahi dute, «neurrien egokitzapen ekonomiko eta juridikoa borondate eta justizia kontua baita». Iruñerria, Erdialdea eta Erriberari ematen zaizkien



2013an desagertu zen arte – «Krisiaren aitzakiarekin», Jorge Agirre PSNko parlamentariak aitortu zuen bezala –, inguru horretan egindako inbertsio aurreikuspenen %60 gauzatu zituen. Inbertsio horiek Itoizko urtegia izateagatik konpentsazio gisa jasota zeuden, inguruaren garapena baldintzatu baitu. Agoitzek, esaterako, komunikazio gune nagusia izateari utzi dio, isolatuta gelditu da eta kultur, industria eta ingurumen ondarearen galera nabarmena izan du. Eskualdean izandako eragina konpentsatzeko eta lurraldea lehengoratzeko

horretan, Foru Gobernuaren laguntza eskatu zuen, eskualdeari «trataera berezia» emateko, «urteko ekarpen ekonomiko zehatz bat egitea, udal bakoitzak egiteke dituen proiektuak edo eguneratuagoak eta beharrezkoagoak diren beste proiektu berri batzuk egiteko».

Carlos Oroz Artzibarko alkateak beste kontu bat salatu zuen: zein desberdina diren azpiegitura mota horiek edukitzeagatik zergak estatuan eta Nafarroan, eta argi eta garbi Nafarroako udalentzat kaltegarria dela adie-

onurengatik konpentsatu behar direlakoan daude, eskualde horiek Pirinioaurreko haranetako urarekin garatzen baitira, Itoizko urtegiaren inguru horretako etorkizuna zalantzan dagoen bitartean (errentagarritasun eta produktibitate urria, biztanleak galtzeko arriskua).

Hori dela eta, exekutiboari eskatu zioten, "Ubi-dearen alde" baitago, udalerrri horiekiko eskuzabala izan eta laguntza eman diezaien, "Itoiz existitzen den bitartean, behintzat", Unzué adierazi zuen moduan.

## KARRIKA BERRIA OINEZKOENTZAT JARRI DA UDA OSOKO ASTEBURUETAN



Pairatzen ari garen pandemiak tokiko ekonomia, ostalaritzaren sektorea bereziki, eragin ditu kalteak. Ondorio horiek arintzen lagunduko duten neurriak eta jarduketa-programak ezartzeko asmoz, Udalak bilera bat egin zuen kolektibo horrekin, haien eskariak entzuteko eta negozioa bultzatuko duten akordioak lortzeko, eta, betiere, gainerako agoizkei eta

agoizkei ahalik eta kalterik txikiena eragiten saiatzeko.


Horrela, San Isidro eguneko astebururik aurrera, espazio publikoetan terrazak jartzea ahalbidetu da, eta asteburuetan Karrika Berria itxi egiten da ibilgailuen trafikoarentzat, ordutegi honetan:

## AGOITZEK BAT EGIN DU NAFARROA EZAGUTU SAREAREKIN

Agoitz Nafarroa Ezagutu Sareko beste erakunde kide bat da. Ekimen horretan parte hartu ahal izateko, beharrezkoa da gune bat edukitzea, Natura Guneetat edo Espazio Bereiztat hartutakoa: bainatzeko guneak, mendi enblematikoak edo ibilbideen sarea, besteak beste. Edonola ere, Ezagutu Sarean parte izateko abiapuntua da katalogazio formal horretaz gain, naturaguneak edo espazio berezi horietako erabilera publikoko eta kudeaketako ordezkari eta kudeatzaileak edukitzea.

Sarea eratu berri den elkarte da, eta Na-

farroako lurralde-agentziak eta Lur-sareak sustatu eta koordinatzen dute. Haren helburu nagusia da katalogatutako espazioen kudeatzaile guztien arteko topagune bat sortzea eta esperientziak trukatzeko, sareko lana baliagarri izan dadin baliabideak optimizatzeko. Halaber, Nafarroaren irudi inklusiboa sortu nahi du, naturaguneen eta espazio berezien inguruan, bisitarietzako



eskaintza eta zerbitzua hobetzeko sare bat sortzeaz gain, modu endogenoan lan egin dadin, tokiko biztanleek espazio horiekiko duten kideztasentimendua areagotuz eta horiek kokatuta dauden espazioen lurraldegarapen jasangarrirako tokiko administrazioaren eta foru-administrazioaren arteko harremana areagotuz.

## TASA ETA ZERGA KOBRTATZEA

Udalaren zerga-betebeharren kobrantzari dagokionez, alarma-egoera indarrean jarri ondoren jakinarazpeni zegozkien ordainketa-epeak 2020ko maiatzaren 30era arte luzatu ziren. Arau horrek eragina du kontribuzio-zergan eta uraren tasan.

Alde horretatik, kontribuzioaren zergaren lehen seihilekoaren likidazioa 2020ko ekainaren

1ean egin zen, eta uraren tasaren lehen hiru-hilekoaren kargua 2020ko uztailaren 1era atzeratuko da; era berean, 2020ko bigarren hiru-hilekoari dagokion ur-tasaren kobrantza 2020ko irailaren 1era atzeratuko da.

Gogoan izan behar dugu ekarpenaren gehikuntzaren arrazoia dela Nafarroako Gobernuak, Toki Ogasunen Funtzaren banaketa

- Ostiraletan, 20:00etatik 08:00etara.
- Larunbatean, 13:00etatik 08:00etara.
- Igandean, 12:00etatik 22:00etara.

Lehenengo kasuan garaje-plaza dutenek bi irteera izango dituzte:

- Irteera Erregeordearen kaletik, eta handik San Migel kalera gurutzatuko da.

- Irteera Larrinetako kaletik, Landakoa norabidean. Domingo Elizondo (kamineroak).

Jakin badakigu uda osoan aplikatu beharreko neurri horrek eragozpenen bat eragingo diela auzotarrei, baina uste dugu harreman sozialerako eta aisialdirako espazio irekiak eskaini behar ditugula, segurtasun-distantziak errespetatu ahal izateko eta beti arduraz jokatzeko. Ez dezagun ahaztu birusak hor jarraitzen duela, eta edozein erlaxazio eta segurtasun neurriak ez betetzeak 0 fasera itzultzea eragingo dutela.

Gogoratu eta azpimarratu nahi dugu kalea ez dela moztzen, ibilgailuentzat ixten dela hesi mugigarriekin, eta bide bat uzten dela alde zaharreko bizilagunak garajeetara sar daitezela.



## ONETSITA, ELIZAK MODU BIDE GABEAN IMMATRIKULATUTAKO ONDASUNEI BURUZKO MOZIOA



Frankismo garaian, elizaren eta erregimenaren arteko lankidetzaren ondorioz, eta 2015. urtera arte, espolio izugarria gertatu da. Eliza katolikoak milaka ondasun higiezin (elizak, apaizetxeak, hilerrak, finkak, etab.) immatrikulatu ditu, elizbarrutiko kasuan kasuko arduradunaren ziurtagiriak baliatuz eta jabetza-titulurik egiaztatu gabe. Frankismoaren garaiko lege batean oinarrituta egin zuen, hasiera batean; eta, gero, 1998az geroztik Aznar presidenteak emandako dekretuan (zalantzarria da bere konstituzio-

naltasuna). Beraz, era askotako ondasun materialez jabetze bidegabe eskandalagarria da, baita interes kultural handia duten beste ondasun batzuek ere, eskuarki komunean erabili ohi direnak.

2008an, Parlamentuko presidentek Justizia Ministerioari eskatu zion Nafarroan immatrikulatutako ondasun guztien zerrenda bat lortzeko; eta, eskaera horren ondorioz, jakin da Agoitzen, 1.087 higiezinetatik, 4 direla modu bidegabean eskuratutakoak.

## ANIMALIAK EDUKITZEKO ORDENANTZARI BURUZ

Azken asteetan, Agoizko Udalak 2011/01/20an onartutako eta urte bereko martxoan Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO) argitaratutako Animaliak edukitzeari buruzko Ordenantzak jasotzen dituen neurriak eta arauak betetzean nolabaiteko erlaxazioa antzeman da. Horrek herriko eta inguruko bizilagunekiko enpatia eta errespetu eza adierazten du, eta, beraz, nahitaez bete behar dela azpimarratu nahi dugu.

Ordenantza horren 11. artikulua jasotzen due-

nez, txakurren jabeek txakurrak lotuta eramateko betebeharra dute, bai eta arriskutsua izan daitekeen arrazako edo eraso-pizgarritzat jotzen diren animaliek muturrekoa ere eraman behar dute.

Aipatutako arauaren 14.1 atalean, gainera, animalia horien gorotzak jasotzeko eta leku egoki batean uzteko betebeharra ezartzen da. Arau-hauste horrek zigor handiak dakartza berekin.



Azken urteotan, Agoizko Udalak Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformak sustatutako biltzarretan eta ekintzetan parte hartu du. Plataforma horri atxikita dago 2007. tik. Deialdi horietako batean, udal eta kontzeju guztietan akordio bat hartzea eskatu zen, gure kasuan joan den martxoko osoko bilkuran onartu zena, eta honako puntu hauek jasotzen dituen:

- Jabetza Erregistroan jasotzea Hipoteka Legearen 206. artikulua babesean eta hura indarrean dagoen bitartean Eliza Katolikoak (edozein zela erabilitako izendapena: Elizbarrutia, Gotzaindegia, Parroquia edo antzekoak) immatrikulatutako ondasunen orri bakunak.

- Hala badagokio, Agoizko Udalaren izenean immatrikulatzea hirugarrenek immatrikulatzeko arriskua duten ondasunak.

- Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformarekin lankidetzan aritzea, urtean 300 euroko ekarpena eginez.

- Eliza katolikoak immatrikulatutako ondarea berreskuratzeko bultzatzen diren ekimenetan parte hartzea.

- Akordio hau Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformari helaraztea (info@plataforma-ekimena.org)

## ELIKAGAI-BANKUAREN BANAKETA

Alarma Egoera dekretuarekin hasi zen osasun-krisialdiaren barnean, joan den martxoaren 14an, Izaga Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak kudeatzen duen Agoizko elikagaien bankuak 94 familia-unitate artatu ditu (289 pertsona elikadura-laguntzako programari atxikita), eta bitan banatu ditu 4.532 kg elikagai.

Oraingoan, COVID-19ren krisiaren ezohiko inguruabarren aurrean, eta osasun-arloko murrizketak eta gomendioak direla eta, udal-lagileek egin dute banaketa, eta ez normalean elikagai-sortak prestatzen dituzten boluntarioek.



## HAUSPOTU, HERRIAK INDARBERRITZEKO

Duela hamarkada batzuetatik hona, hainbat faktore oztopatzen ari dira gizartearen garapena. Izan ere, hiri handiak erritmo azkarrean hazten ari diren bitartean, landa inguruneak argia itzaltzen ari da pixkanaka. Gero eta handiagoa da eskualdeen arteko desoreka; beraz, neurriak garai hartu ezean, egoerak ezingo du atzera bueltarik izan. Errealitate horren aurrean, Udalbiltzak «Hauspotu, herriak bizituz» proiektua sortu du Koop 57 eta OlatuKoopekin batera, gizarte-ekonomia eraldatzailean oinarritutako ekimenak sustatzeko eskualde behartsuetan.

Proiektua ezagutarazteko, sei jardunaldi antolatu dituzte, eta horietako bat Agoitzen egin dute. Parte-hartzaileek gizarte ekonomia eraldatzailearen munduan sartzeko lehen urratsak emateko aukera izan zuten, eta, aldi berean, dagoeneko martxan dauden hainbat proiektu gertutik ezagutzeko aukera. Batez ere, gure eskualdeko beharren arabera, despopulazioaren eta adinekoen zaintzaren gaien eragin zen, Empenta Artieda proiektuaren bidez. Gainera, etxebizitza komunitarioen gaia ere jorratu zen.

Sei prestakuntza saioak amaitu ondoren, zazpigarrena egingo dute, ideiak eta kezak komu-



nean jartzeko. Ondoren, tutoreak esleituko dira, lanak abian jartzen lagun dezaten. Zaintzan, etxebizitzan (komunitate erabilerarako lursailak eta eraikinak), nekazaritza ekologikoa eta proiektu komunitario eta kolektiboetan oinarri-

tutako proiektuak sustatzea da asmoa.

Ahalegin eta baliabide guztiak beharrezkoak dira eskualdeen garapena bultzatzeko eta lurraldeen arteko desberdintasunak arintzeko.

## 'OHOLTZARA SALTO A ESCENA' EGITASMO BUKAERAKO JAIA



Hainbat antzerki-teknika erabiltzeko eta praktikan jartzeko ezagutzak eman dituzten ikastaro eta tailerrei amaiera emateko, Nafarroako hamabost udalerritatik etorritako 150 gazte baino gehiago bildu ziren Tafalla Kulturunean Oholtzara Salto a Escena programari

amaiera emateko. Nafarroako Antzokien Sareak antolatutako ekimena da, eta La Caixa-ko Gizarte Ekintzaren eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren laguntza izan du, 130.000 eurokoa, hain zuzen ere. Arte eszenikoak gazteei hurbiltzea eta horiek protagonista bilakatzea du

helburu proiektuak.

Egunean zehar hainbat aktibitate egin ziren: bi antzerki eta zirku tailer bat (Zirika-Zirkus konpainia), Hip Hop tailerra (Arkadia Dance Studio) eta erritmo, musika eta perkusio tailerra (Txus Egilaz). Bukatzeko, festa egin zuten DJ batekin.

Gogoratu behar da Oholtzara Salto a Escena ekimenaren bidez, 2019ko urritik 2020ko otsailera bitartean garatu den bigarren denboraldi honetan, hainbat jarduerak egin direla Nafarroako 26 herritan, eta, ondoren, antzerkilan aztertu eta erakutsi direla: «Mirari zorigaitzoko lurraldean» eta «Julietta To Da», Atikus Teatro taldearen eskutik; dantza garaikidearen muntaia, «Dantzabidea» Dantzak taldeko dantzarien eskutik, eta «Ura» eszenografia Zuk Dance konpainiako dantzarien eskutik. Antzerki Forumeko saioak ere eman dituzte Baketik taldeko langileek, eta antzerki tailerrak Quiero Teatro konpainiako teknikarien eskutik. Denbora horretan zehar, nerabeek antzerkiarekin harremana izateko aukera izan dute, eta gazteen artean arte eszenikoaren hainbat alderdi ezagutarazi dira.



## MARTXOAREN 8ARI BURUZKO AGERPEN INSTITUZIONALA

Mobilizazio ugariaren eta bi greba feministaren ondoren, kaleetako aldarria argia eta irmoa da. Gure gizarteak justiziarik eta demokraziarik aurrera egin dezan, beharrezkoa da egituretan zein politika instituzionaletan bertan txertatzea printzipio eta aldarririkapen feministak. Beharrezkoa da politika horien erdigunean egotea erreproduzio sozial iraunkorra jarriko duten eraldaketa erradikalak, gehiengo sozial eta merkantilizatu bizi-baldintzak prekarioago bihurtzen dituen kapital-metaketa mugiaraziz eta natura usiatuz, etorkizuneko belaunaldien biziraupena arriskuan jarritz. Lehen tasun politikoa izan behar du emakume guztiak indarkeriarik gabeko bizitzak bizitzeko duten eskubideak.

Gainera, erakundeek erantzukizunez hartu behar dituzte interpelazio horiek, eta ahal duten guztia egin behar dute herri honetako herritarrak hobeto eta inolako bazterketarik gabe bizi daitezela. Feminismoa egunez egun defendatu eta eraikitzen da, baita erakundeetan ere.

Horregatik guztiagatik, Agoizko Udalak, politika feministekiko eta emakumeen eskubidearen aldeko konpromisoa berretsiz, adierazpen instituzional bat onartu zuen martxoaren 8ari, emakume langilearen egunari, buruz.

Akordio horrek hainbat neurri ezartzen ditu herrian emakumeen eta gizonen arteko egiaz-

ko berdintasunerantz aurrera egiteko, horretarako baliabide guztiak bermatuz: memoria historikoa lantzea, ahalduzko eskolak indartzea, emakumeen etxeak edo beste gune autogestionatu batzuk bultzatzea eta/edo indartzea, eta gazte-politiketan, emakume gazteen ahalduzko sustatzea.

Era berean, adierazpen horren arabera, prozesu parte-hartzaile bat abiaraziko da elkarrekin lan egiteko espazio bat abian jartzeko, non udaleko teknikariek eta politikariek, mugimendu feministak eta hezkuntzaren, osasunaren, gizartearen eta abarren esparruko beste gizarte-eragile batzuek parte hartuko duten.

## EMAKUMEAREN EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK



Agoizko Udalak (kultura eta berdintasun arloak) martxoaren 8a ospatzeko planteatutako programazio zabala ezin izan zen osorik ospatu, alarma-egoeraren dekretuak hartutako neurrien ondorioz agenda eten egin behar izan zelako. Dena dela, hainbat ekitaldi egin ahal izan ziren, eta guztietan izandako erantzuna eta harrera izugarria izan zen edizio honetan ere.

Aurten hainbat berrikuntza sartu ziren. Horien artean, emakumezkoen eskubaloiko hainbat partida programatu ziren, non Agoizko kadeetee eta txikiak euren ligetako partida ofizialak jokatu zituzten. Amaitzeko, mosaiko bat egin zuten aurkariaren taldeetako jokalariekin batera. Hurrengo egunean, amek eta alabek partida dibertigarri bat jokatu zuten.

«Emakumeak sormen-gai, sormen-iturri» izenburuko VII. edizioko erakusketaren inaugurazioan bildu ziren, berriz ere, herriko herritar



ekitaldi nagusiak. Aurten, giza mosaiko tradizionalaz gain, «Bortxatzailea zu zara» gaiari buruzko performancea egin zuten. Bi ekitaldiek jende asko bildu zuten Merkatu plazan. Hilaren 12an, osteguna, berriz, berdintasunaren inguruko ipuin kontalaria izan zen Kultur Etxean.

Teknologiari eta burutapenei esker Socorro Lataza, Blanca Zapae eta Idoia Zabalzaeren olerkiez gozatzeko aukera izan genuen, izan ere, sare sozialen eta whatsappen bidez zabaldu ziren haien poemak audioak.

«Salerosketaren aurkako ekintza» taldeko Alicia Gimenezek «Zaindu zure espazioa» autodefentsa feministaren gidaren aurkezpena bertan behera utzi behar izan zen, bai eta Zine Foruma ere, non «El orden divino» filma aurkeztu eta ondoren eztabaida antolatuta baitzegoen Ruth Iturbiderek.



## AGOITZ, KLIMA ETA ENERGIAREN ALDEKO ALKATEEN ITUNARI ATXIKIA

Nafarroako 104 toki-erakundek, tartean Agoitzek, bat egin dute dagoeneko Nafarroan Foru Gobernuak koordinatzen duen Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Itunarekin. Itun horren helburua da berotegi-efektuko gasak murriztea, klima-aldaketara egokitzeko eta energia-pobreziari aurre egiteko ikuspegi komuna hartzea, eta, horrela, munduko ekimen horri bere tokiko ekintza gehitzea.

Alkateen Ituna tokiko klima eta energiaren aldeko munduko hiri eta herrietako mugimendurik handiena da. Une honetan 10.033 dira sinatu duten udalerririk, 60 herrialdeetakoak. Herriek, guztira, 318.479.450 biztanle egiten dituzte.

Klima eta Energiaren aldeko Alkateen Ituna sinatu duten udalen konpromisoa CO<sub>2</sub> eta berotegi-efektuko beste gas batzuen (BEG) isurketak gutxienez %40 murriztea da 2030era

arte. Bigarrenik, erresilientzia handitzea, klima-aldaketak eragindako inpaktuetara egokitzuz. Hirugarrenik, bere konpromiso politikoa tokiko ekintzetara itzultzea, tokiko ekintza-planak eginez eta horien ezarpenari buruzko txostenak aurkeztuz.

Zehazki, ituna sinatu duten toki-erakundeek konpromisoa hartu dute bi urteko epean, udalbatzak erabakia hartzen duenetik hasita, Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana (bakeak) aurkezteko, egin nahi dituzten funtsezko ekintzekin. Planak erreferentziazko isurien inbentario bat (2005. urtea) eta arrisku eta kalteberatasun klimatikoaren ebaluazioa jasotzen ditu. Helburua da Nafarroako toki erakunde gehienek klima eta energia politika erantzukidea hartzea, Foru Erkidegoaren eta Europako Batasunaren konpromisoekin. Orain arte, ia 500.000 biztanle daude bertan, Nafarroako biztanleriaren %77, Iruñea barne.



Alkateen Ituna sinatu duten udalak.

Udalerririk gehiagok laster konpromisoa hartzea espero da.

## IRATI HIRI-HONDAKIN SOLIDOEN MANKOMUNITATEAREN INFORMAZIOA

**ADARREN ETA BELARRAREN ETXETZ ETXETZKO BILKETA.** Irati HHSen Mankomunitateak Agoizko bizilagunei jakinarazi nahi diegu adarren eta soropilaren etxetxeko bilketa etenda dagoela, eta horrek lehengo egoerara itzultzea dakar. Hondar berde horiek Baraxitoxa auzoan horretarako propio egokitutako gunean utzi behar dira. Gunea banatuta dago, kartel batzuen bidez, hondakinak behar bezala sailkaturatu uzteko. Berdegunerako eremu bat dago, adar eta hondar berdeetarako beste bat, eta egituratzaileerako hirugarren bat, interesa duen edonork jaso dezakeena etxeko konpostagailuetan erabiltzeko.

Azkenik, gogoratu nahi dugu hondakin berdeak eta inausketa-hondarrak ezin direla isuri gaikako bilketarako edukiontzietan, ezta bide publikoan ere. Eremu horretatik kanpo eta kontrolrik gabe edozein lursail publiko edo pribatutan inausketa eta landare-hondakinak botatzeak isuna jartzea dakartzu.



**BOLUMEN HANDIKO HONDAKINEN BILKETA.** Emauseko Traperoak (bilketa zerbitzua esleituta duena) ez dira oraindik hasi jasotzen. Mankomunitateak, bestalde, ez du bilketa egin ahal izateko behar diren baliabideak. Horregatik, pazientzia eskatu nahi diegu herritarrei, eta gogoratu nahi dugu bide publikoan tamaina handiko hondakinak uzteak zigorrak ekar ditzakeela.

Informazio gehiago lortzeko edo edozein zalantza argitzeko, telefono hauetara deitu daitezke: 948 336 217, 7:00etatik 11:30era, eta 609 667 233, 7:00etatik 14:30era.

**GUNE BARBIA.** Ekainaren 1etik aurrera, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak eskaintzen duen gune garbia zerbitzua ohiko ordutegietara itzuli zen (goizez), joan den urtearen amaieran igorri eta mankomunitateak etxe guztietan postontzietan banatu zen egutegian agertzen diren datetan. Agoitzeko ostegunetan egiten da zerbitzua, azoka jartzen den plazan



bertan. Bilketa presentziala da, betiere beharrezko segurtasun-neurriak hartuz.

**KONPOSTERAK.** Prozesu-baldintza egokiak ziurtatzeko, Irati HHS Mankomunitateak gogoratu nahi die komunitateko konpostajean inskribatutako familiei zein den konpostajere-muetan materia organikoa uzteko modu egokia.

Azkenaldian ikusi dugu pertsona batzuek materia organikoa konposta egiteko ontzira botatzen dutela poltsen barruan. Berriz diogu, poltsa horiek konpost bihurtzeko ezin direla horrela utzi behar. Hustu egin behar dira, eta, ondoren, botatutako hondakin organikoa egituratzailearekin estali.

Eskerrik asko parte hartzeagatik eta laguntzeagatik. Edozein gertakizun edo iradokizun posta elektronikora bidali dezakezue: info-compost@rsuirati.es edo 609 667 233 telefono zenbakira.





## LEGEZ KANPOKO HONDAKINDEGIAK

Hondakinak behar bezala uzteko eremu espezifikokoak egon arren, sarritan, bereziki Agoizko kanpoaldean, hondakindegia sortzen dira tresnak, txatarrak edo produktu toxiko eta arriskutsuen hondakinak botata, eta horrek, ikusmen-inpaktuaz gain, ingurumenarazo larria dakar. Industrialdeko zenbait puntu eta futbol-zelaiko muino-hondarrak tamaina handiko hondakinak, obra-hondakinak eta landare-hondakinak uzteko erabiltzen dira, eta eremu horiek benetako zabortege eta osasun-gaiztasun-gune bihurtzen dira.

Jokabide horiek zigortzeko modukoak dira, eta auzokoek gure ingurunea zaintzeko duten erantzukizuna eskatzen dugu berriz ere.



## IRATI TXANPONA, ADIBIDE NAZIONALA

«Hondakinen gaikako bilketa sustatzen duen Nafarroako txanpona» izenburupean, El País egunkariak artikulu interesgarri bat argitaratu zuen Irati Hondakin Solidoen Mankomunitatearen ekimenari buruz. Entitateak txanpon bat diseinatu eta inplementatu du, hainbat hondakin-frakzio (materia organikoa eta plastiko ez-bilgarriak, batez ere) berreskuratu ahal izateko eta, aldi berean, eta tokiko ekonomian berrerabili daitezkeen.

Artikuluak Iratiko Mankomunitatea ekonomia zirkularren abangoardian jartzen du, eta bizilagunek «Iratia» lortzeko jarraitu behar duten prozesua azaltzen du: herri mankomunitateak saltokien %90ek onartutako txanponak dira, erosketak osorik edo zati batean ordaintzeko.

2019.ean merkaturatu zenetik, 1.500 Irati jarri dira zirkulazioan, herritarrek bereizi eta entregatu dituzten hiru tona plastikori dagozkienak, 2020.ean mankomunitatearen eremuko konpost-guneetako hesi bihurtuko direnak.



Albistearen aurreratzen da, Mabel Cañada Mankomunitateko lehendakariak adierazi bezala, Mankomunitateak espero duela EkhiLur diru elektronikoen kooperatiban sartzea heldu den udaberrian. Horrela, hondakinak bereizten dituztenek Iratiko txartelak izango dituzte eskura, baina diru kontu elektronikoa bat izateko aukera ere izango dute.

Gainera, El País-ek jaso du ere Mankomunitateak berriki zabaldu duen sistema berria, materia organikoaren etxez etxeko bilketa hobe-

tzeko. Dagoeneko, 100 etxe parte hartzen dute, boluntarioki; urte amaieran 300 izatea espero dute eta legegialdiaren bukaeran, berriz, 1.500.

«Dagoeneko ia 500 etxe dira etxeko eta komunitateko konpostajearen parte hartzen dutenak. Zati organikoaren konpostajearen edo etxez etxeko bilketa sarrituz eta ontzi ez diren tamaina handiko plastikoen sailkapena sarrituz eta erosiz, handituko da sailkatutako hondakinen kantitatea eta kalitatea datozen bi urteetan. Mabel Cañadak esandakoaren arabera, "helburua da %10ekoa izatea berreskuragarriak izango ez liratekeen eta zabortegira joango liratekeen materialak».

Tokiko merkataritzan erabiltzeko txanpona, portaera ekoeraginkorra saritzen duena, tresna indartsua da eredu ekonomikoa aldatzeko, benetan bultzatzen dituelako ekosistema ekonomiko eta sozial zirkular eta birsortzaile, eta horregatik abangoardian dago. Beraz, arlo horretan aitzindaria da Irati Mankomunitatea. Zorionak.

## UDAL DERMIOKO IBILBIDEETAN BIDEZIDORRETAN MOTORREN JOANA-ETORRIA ERAGOZTEKO OZTOPOAK

36/1994 Foru dekretuaren 11. artikulua hone-l dio hitzez hitz: "Debekaturik dago motore-dun ibilgailurik landetan zehar ibiltzea, errepideetatik kanpo edo bi metro baino zabalera txikiagoko landabideetan, suebaketan edo zura ateratzeko pistetan barna. Era berean, ez da onartuko Administrazioak espresuki debekatutako beste landa-bide edo pistetan barna zirkulatzeko, bi metrotik goitiko zabalera izanagatik ere".

Agoizko Udalak zenbait bidetan eta Iratiko interpretazio-ibilbidean seinaleak jarri zituen, motorrak bertatik ibiltzea debekatzeko. Hala ere, ikusten ari gara araudia bete gabe jarraitzen dela eta seinaleztapenak ere kendu direla.

Neurri hori betetzeko beste urrats bat eman eta, inguruko bidezidor eta bideetan hesi moduko egurrezko hesolak jartzen ari dira, oinezkoentzako eta bizikletentzako soilik diren

pasealekuak sortuz. Berriz ere errespetua, gizalegea eta lankidetzaz eskatzen ditugu.



## EL IRATI S.A. ERAKUSKETA, "CONOCER NAVARRA" ALDIZKARIAN

Conocer Navarra hiruhilabetekariaren 58. zenbakia martxoaren azken igandean jarri zen salgai kiosko eta liburudendatan. Bere orrialdeetan, inauguratu berri den eta Agoizko udaletxearen azken solairuan dagoen El Irati SAREN erakusketa iraunkorrari buruzko erreportaje zabal bat jasotzen du.

Aldizkariak Nafarroako turismoari, ibilbideei, ondareari, kulturari eta naturari buruzko gaiak jorratzen ditu. Azken zenbakiaren gai nagusia Ameskoa bailarari buruzko erreportaje handi bat da. Hamalau orrialde gorde ditu, hala ere, El Irati SAREN enpresari buruzko artikulu batentzako, Victor Manuel Egia Astibia idatzi duena. Zenbait egileen irudiekin eta argazki-funtsekin ilustratuta dago. Erreportajeak laburbiltzen eta azaltzen digu 1907an Elizondo Elizondo aetzak sortutako enpresaren aktibitatea, diziplina anitzekoa eta ozo zabala izan zena: basoaren ustiaketa (zura ateratzea), errekatzaileak edo pikariak, Ekaiko zerrategia, trena, ikatzaren industria edo destileria.

Gainera, bi orrialdetan xehetasunez deskribatzen dira erakusketak jasotzen duen ma-

teriala (12 azalpen-panel, argitaratu gabeko argazkiak dituzten 9 panel, 3 maketa eta 3 ikus-entzunezko), bai eta hiribilduan egin daitezkeen bisita-aukerak eta bestelako konbinatuak ere. «Zer egin Agoitzen» errepasatzeko tartea ere badago. Bisitariak gure hiriaz gozatzeko aukera izango dute: ibilbideak egin, arte- eta ondare-elementu garrantzitsuenak bisitatu, spa eta haren alde hidrotermalean egon, edo Irati ibaia jaitsi raftingez.

Aldizkariaren azken atalean, El caleidoscopio izenekoan, «Salvemos el barrio del Aserradero de Ekai» izenburupean, Carlos García Pascualek, Cedernako garapen-agenteak, El Irati SAK hartu zuen eremuan premiaz jarduteko eskaria zabaldu zuen, Nafarroako XX. mendearen lehen erdialdeko enpresa garrantzitsuenetako bat izan zen hori betiko gal ez dadin. Laster, Irati Trenaren Bide Naturala eta Erromesen Ibilbidea, EuroVelo 3 Sarearen zati den ibilbidea, Zerrategia auzoa zeharkatuko dute, eta ondare multzo horren erakusleho turistico garrantzitsua izanen da. Ondare bat eta bizitzeko modu bat Agoizentzat eta bere eskualde osoarentzat, galtzen utzi ezin duguna.



## NAFARROAKO ARTXIBATEGI OROKORRAK AGOIZKO UDALEKO 1563. ENKO AGIRI BAT ERRESTAURATU DU

Duela bi urte, Agoizko udalak "Agoizko Istoriak" erakusketa antolatu zuen. Bertan, besteak beste, udal artxibategian gordetzen diren zenbait agiri ikusi ahal izan ziren. Horren ondorioz, Nafarroako Errege Artxibategi Orokorra paper-sorta horietako batzuk zaharberritzeko aukera ireki zuen, Nafarroako Artxiboak dokumentu-ondarea babesteko ematen duen zerbitzuaren bidez.

Hala, Agoizko Udalak, etorkizunean kontsulta eta kontserbazioa bermatzeko asmoz, ez zuen zalantzarik izan dokumentu horietako bat emateko, hondatze-zantzu ugari baitzitu, haren gainean esku har zezan. Joan den urtarrilean, zaharberritze eta digitalizazio prozesua amaitu ondoren, Nafarroako Errege Artxibategi Orokorra dokumentua itzuli zion Agoizko udalari, Udal Artxibategian berriro gorde zezan, haren funtsaren parte baita.

Dokumentuak (eskuz idatzitako paperezko zortzi orri, estalki bitxi bat duena), 1563. Urtekoa da, eta Agoitz hiribilduaren eta Don Martin Donamariakoaren artean, parrokia elizako jabetza zela eta, izandako auziak sortutako dokumentazio guztia biltzen du. Donamaria-



tarrek Ama Birjinari eskainitako kapera euren jabetzakotzat hartzea nahi zuten, eta baita alkatearen aurrean joatea prozesioetan eta mezan bakea hartzean ere. Hiribilduak errefusatu zituen asmo horiek, eta, ondorioz, bi aldeek bi arbitro izendatuko zituzten; auzia aztertu eta epai arbitrarioa emateko, guztiek onartu beharrekoa.

Testuak 1563ko urtarrilaren 4tik maiatzaren 12ra bitartean idatzita daude eta egintza hauek biltzen ditu: Hiribilduaren eta Martin

Donamariakoa jaunaren artean arbitroen erabakia onartzeko hartutako (eta sinatutako) konpromisoa, arbitroen erabakia bera, aldeentzako jakinarazpena, eta epaiaren berrespena (erregeordearen eta idazkariaren sinadurak eta Erresumako Kantzelaritzaren zigilua).

Nafarroako Artxibategiko zaharberritze-tailerak zaharberritu du agiria: dokumentuaren gainazala garbitu, euskarria konpondu, paper-sorta josi eta arrakalak ez handitzeko azala sendotu, betiere jatorrizko koadernaketa errespetatuz. Prozesu horren ondoren, orri guztiak digitalizatu dira.

Hemendik aurrera, esku-hartzeri esker, Agoizko dokumentu-ondareko ale bikain horren biziraupena bermatuta dago. egoki kontserbatzen eta manipulatzeko bada.

Nafarroako Errege Artxibategi Orokorreko ekipo informatikoetan ikusi ahal izanen da agiria, kopia digital bat bertan gelditu delako. Hala ere, ikertzaileek horren erreproduktzio bat eskuratu nahi izanez gero, baimena eskatu beharko diote Agoizko udalari.



## ONARTUTA, TALDE KULTURALEKIN SINATZEN DIREN HITZARMENAK ETA BESTE ERAKUNDE BATZUENTZAKO LAGUNTZAK

Joan den maiatzaren 28an egindako osoko bilkura berezian, hiriko hainbat talderekin 2020ko ekitaldirako lankidetzaz-hitzarmenak onartzea erabaki zen.

Horien bidez, Angiluerreka (Agoizko Dantzari Taldea, El Tuto aldirakaria, Agoizko Gaiteroak, Agoizko Txistulari Taldea, Burrumba Taldea, Trikitixak, Irati Antzerki Taldea, inauteriak, San

Isidro eta San Migel, gazteriaren eguna jaie-tan), Bilaketa (Mariano Garcia musika banda, ahots eta instrumentu taldea eta José Hierro aretoaren lagapena), San Migel abesbatza, Milaur, San Migel Guraso Elkartek jasoko dituzte diru-laguntza horiek. Laguntzak proiektu soziokulturalak sustatzeko dira, Agoizko Udala-ren jai-kulturako egutegiari tokiko talde artistikoen jarduerak emateko.



## AGOITZEK INAUTERIAK OSPATU DITU

Otsailaren 22an, larunbata, egindako ekitaldiarekin, Agoitzek hasiera eman zien aurtengo Inauterietako programari. Eguna ohiko puska-

biltzearekin hasi zen, hau da, arrautza eta txistorra bilketa eginez. Bertan, herriko inauterietako pertsonaiak, maskaritatik eta kaskabo-

boak, egon ziren, eta kalejira koloretsua egin zuten Agoizko Txistulari Taldeak eskainitako musikaren laguntzarekin.

Arratsaldean, haurrentzako txokolatadarekin hasi zen. Ondoren, ohi bezala, Kaskabobo eta Maskariten kalea ireki zen, eta zain zegoen jende andanak kalean zeharkatzeko aukera izan zuen. Herriko txistulari, trikitilari, gaitari, joaldun eta erraldioen konpartsak parte hartu zuten ondorengo desfilean. Gauean, Angiluerreka Elkarteak, DJ batek amaiera eman zion eguneko ekitaldien sortari.

Inauterietako asteartean kalejira egin zen, haur eta gaztetxo askoren partaidetza handia izan zuena. Ondoren, Merkatu plaza izan zen Ziriko eta Kapusairen dantzaldiaren eta erretaren eszenatokia. Txistorra-tortilla pin-txoak banatu ziren ohiko afariaren aurretik, eta horrekin bukaera eman zien aurtengo inauteriei.



## SANISIDROAK DESBERDINAK IZAN DIRA

Aste batzuk dira Udalak komunikatu baten bidez auzotarrei jakinarazi ziela mundu guztiak zer nahi zuen: «San Isidroren omenezko jaiek ez dute lekuri izango aurtengo hiriko programazio ludikoan. Udalak bertan behera utzi du, osasun krisia dela eta, Udalaren lehentasuna Agoizko bizilagunen ongizatea eta osasuna baita».

Horren ordez, jaiegun birtualak bizi izan ziren herrian, eta Udalak, Angiluerreka elkartearekin batera, agenda oso bat osatu zuen, jaietako ekitaldi tradizionalak buruzko bideoekin. Programazio guztia Tutoberri.info web orriaren bidez jarraitu ahal izan zen.

Hiru egunetan ekitaldi birtualak eskaini ziren: bezperan, erraldioen tailer batekin hasi zen; ondoren, San Migel abesbatzak «Salbea» eskaini zuen megafoniaren bidez; ohiko suak ere izan zen, pantailen bidez eskainia, ordea; pa-



troiaren egunean, berriz, Milaur Gaitari Taldeak dianak jo zituenekin, eta ondoren, konpartsak hartu zion txanda, onlinez eskainitako muntaia dibertigarri batekin; Pirritx eta Porrotzek ere tarte txiki bat izan zuten sarean birtualean, txokolatada eta Txokolatearen Jota hasi aurretik. Baina ekitaldien egitaraua larunbatera zabaldu zen ere, eta egun horretan agenda zabala eskaini zen: Sareanek azoka egin zuen, txistularien taldeak eta Agoizko Trikitilariak bermutaren ordua girotu zuten, Tolosako Iraunkorrek txarangak kalejira eskaini zuten, koktel erronda antolatu zen eta Trikititeens taldeak eta herriko Eneko Djak musika gehiago jarri zuten.

Udal bandoaren bidez egin ziren hainbat ekitaldi, hain desberdin eta berezi izan diren jaiak giro alaiagoak jartzeko. Jaiak desberdinak, zalantzarik gabe, baina zapora goxoa utzi digutenak.

## AOIZ NIRE LEIHOTIK

Agoizko Udalak «Agoitz, nire lehiotik» lehiaketa jarri zuen abian. Herritarrei gonbita egiten zitzaizen argazki edo marrazkien bidez erakusteko leihotatik edo balkoietatik ikusten zituzten irudiak.

90 bat argazki eta marrazki igorri dira lehiaketara. Argazki hoberenentzako sariak herriko saltokiek eskaini zituzten opari-txartelak izan ziren, hala nola kultur etxeko ikuskizunetarako sarrerak.

Asier Iglesias, Marina Zabalza, Juan Aquerreta, Marisa Itoiz, Orreaga Iglesias, Alaitz Romero eta Nagore eta Josune Aquerreta ahizpak izan dira adin eta kategoria ezberdinetako sari-tuak. Zorionak!

Aurkeztutako material guztiarekin erakusketa bat egingo du Udalak, gure herriko hainbat ikuspegi eta txoko ezezagun ikusteko.



## KULTUR BALANTZEA

Santa Agedak ireki zuen otsailko kultur programazioa. Urtero bezala, baserriarrez jantzi-tako neska-mutilak bildu zituen jai tradizional honek: makila eskuan, eta Agoizko txistulari taldeak lagunduta, hainbat abesti abestu zituzten. Herriko elizan santua gogorarazten duen tailaren ondoan hasi ziren, eta Agoizko kaleetan barnako ibilaldia egin zuten, Merkatu plazan amaitzeko. Karrika Euskara Taldeak bildutako jende andanari eskainitako faroltxoak piztuta, argitasuna eta distira eman zion ekitaldiari.

Zangozako Kultur Etxean «IntercambiArtez. Ilunabarrean: Agoitz eta Zangoza helburu». Urterilean zehar Agoitzen gozatu ahal izan genuen erakusketa hori bi herrien arteko elkarlanaren emaitza da, kultura-trukerako loturak sortzeko eta Agoizko eta Zangozako argazki-elkarteek egiten dituzten lanak erakusteko.

Alexandra Gapihan-en lana ikusgai egon

## NAFARROAKO ANTZOKI SAREAREN AURKEZPENA



Nafarroako hogeita zortzi herriek parte hartuko dute Nafarroako Antzokien Sarearen zirkuituaren hirugarren edizioan, eta Agoitz horietako bat da. Guztira, 14 konpainiaren 52 ikuskizun programatu dituzte, datozen hilabeteetan zehar. 52 ikuskizunetarik 42 Foru Erkidegoko konpainien proposamen eszenikoak dira. Proiektu hau Nafarroako Gobernuak (125.000 euro) eta ikuskizunak garatzen diren espazio eszenikoek (71.000 euro) finantzatzen dute.

Edizio honetako berrikuntza gisa, eta Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta «La Caixa» Gizarte Ekintzaren lankidetzari esker, programatutako funtzioetako batzuk konpainiek bere parte hartzen duten herrietan garatuko dituzten bitartekaritza-jarduerekin batera datoz, eta, horrela, publikoak prestatzeko eta fidelizatzeke ezarritako helburuetako bat betetzen da.

Nafarroako Antzoki Sarearen zirkuituaren helburua da elkartekideen espazio eszenikoetan egiten den ohiko programazioa osatzea kalitate artistiko egiaztatuko proposamenekin, hizkuntza berritzaileekin, merkatarizatik urruntzen direnak eta gai sozialek errealitatearekin

bat egiten duten gaien alde egiten dutenak. Gainera, antzerkiaren, dantzaren eta zirkua-ren esparruan ekoizpen artistiko profesionala sustatu nahi du, eta ekoizpen horien programazioa bultzatu, bereziki Nafarroako ekoizpenetan arreta jarritz.

Aurtengo edizioan «Egel euria», «Etxerik txiki-na», «Kimera», «Catástrofe» eta «Aita» ikuskizunak nabarmendu behar dira. Modu berean honako hauek ere agertzen dira ekimenaren zerrendan: «Bojiganga», Nafarroako Tdiferencia eta Teatro del Cuervo (Asturias) konpainien arteko koprodukzioa, berriki Asturiasko Arte Eszenikoetako Ohi Sari ugari jaso dituen.

Nafarroako programazioa osatzen dute «Cón-cavo-Convexo» eta «oreka eustearen eta askatzearen artean» ikuskizunak. Ikuskizun horien emaitza 2019an Nafarroako Gobernuaren DNA programaren barruan egindako arte-egoitzen prozesuen emaitza da.

Foru Erkidegotik kanpo, «Zaldi Urdina» euskarazko ikuskizuna dator eta baita dantza garai-kidea eta zuzeneko musika uzta-tzen dituen «Saiok» ikuskizuna, aurreko 948Merkatuan ere parte hartu zuena.

Programazioa borobiltzeko, «Esencial» eta «Mauthausen» ikuskizunak daude, biak ere Titulartasun Publikoko Antzoki eta Auditorioen Espainiako Sareak gomendatuak.



zen Agoizko Kultur Etxean. SARAC 'H' izeneko erakusketa kolore, forma eta lerrotan zentratutako paper gaineko akrilikoz egindako hainbat lan bildu zituen, eta bertan artistak bere emozioetara eta mundua ulertzeko moduetara eraman gintuen.

Adinekoentzako Francisco Yndurain Unibertsitateak bere 20. urteurrena ospatzeko ekitaldien amaiera festa eguna ospatu zuen. Bertan Bilaketa ahots eta instrumentu taldeak parte hartu zuen eta doinu berriak eskaini zituen.



Irati antzerki taldeak «ez dago txartelik» kartela jarri zuen berriz ere, «Marcel» bere suspense lan zirraragarriarekin.

Zoritxarrez, martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean ezin izan dugu kultura-agendan programatutako ekitaldi guztiekien gozatu, COVID-19k osasun-larrialdiko egoera larria dela eta. Horren ondorioz, jarduera asko bertan behera edo atzeratu egin dira. Espero dezagun ekintza horietako batzuk ahalik eta lasterren birprogramatu ahal izatea.



## ETXALDETIK EUSKARALDIRA

*Etxealdetik Euskaraldira!* ekimena abian jarri zen apirilaren 24an, etxeko hizkuntzak aztertu eta bertan ditugun hartu-emanetan euskararen erabilera sustatzeko. Aldi berean, azaroaren 20tik abenduaren 4ra izango dan Euskaraldirako entrenamendu modura balioko du aipatutako ekimenak. Hizkuntza-ohiturak euskararen alde aldatzeko ariketak eta laguntzak eskaini eta zabaldu dira, bideo-pilula batzuen bidez, zazpi egunetan, maiatzaren 3ra arte. Bideo-piluletan hainbat jardueratan (olgetak, filmak ikusi, familia bazkarietan berba egin...) ohiturak aldatzea proposatzen da.

Bideo horiek Euskaraldiko Facebook, Instagram eta Twitter kontuen eta hedabideen bidez zabaldu dira.



## ERA ETA ELAIDE, INOIZ BAINO AKTIBOAGOAK

Era eta Elaide webguneek, Nafarroako toki entitateetako 28 euskara zerbitzuek bultzatutakoak, ez dute eten, etxean konfinatuta egon garen egun hauetan, beren argitalpen plana; aitzitik, inoiz baino aktiboago daude.

Era orriaren bidez, familiei laguntza eta baliabideak eskaintzen zaizkie, seme-alabei euskaraz ikasteko prozesuan lagundu ahal izan diezaieten (aisialdia, etxean, kultur eskaintza). Bertan, ohiko galderak ebazteko informazioaz gain, jolasak, musika, aplikazioak, ipuinak, jarduerak eta abar sartzen dira.

Bestalde, Elaide erreferentzia-gunea da euskara ikasi eta ikaskuntzan aurrera egin nahi dutenentzat. Elaide leku aproposa da euskarazko baliabideak eta praktikatzeko aukerak aurkitzeko. Elaidek, etxean mantendu behar dugun egun hauetan, euskara erabiltzeko aukera ugari eskaintzen ditu: filmak, dokumentalak, jokoak, plataformak, etab.

## TXIKI XIMPLE!, ZAINDU DEZAGUN HAURTZAROA, ZAINDU DEZAGUN ORAINA ETA ETORKIZUNA

Pasa den maiatzean ekimen berri bat sortu zen Agoitzen. Txiki Ximple! Boluntariotza Sarea da, eta COVID-19 izurritean haurrei laguntzea du helburu.

Ekimenaren bidez hezkuntza-arloko profesional talde batek baliabide berri bat eskaintzen die alarma-egoeraren egun hauetan informazioa, orientazioa, gomendioak eta jarduerak eskatzen dituzten familia eta haur guztiei, aldi hori ahalik eta ondoen jasaten laguntzeko.

Tutoberrri.info plataformaren bidez, hainbat baliabide partekatzen eta eskaintzen dira. Besteak beste, familientzako gomendioak eta orientazio-jarraibideak, eta haurrentzako jolasak, erronkak, lehiaketak eta jolas-jarduerak.

Txiki Ximple! sare irekia da, aktiboa eta haurtzarora ezagutzen duen edonork egin dezake bere ekarpena. Boluntariotza-sare honetan parte hartu ahal izateko, zure proposamena hona igorri dezakezu: txikiximple@gmail.com. Mila esker.

## SAN MIGEL BERRIAK BUTAKAK ESTREINATU DITU

Azken egunotan 12.000 eserleku inguru kendu dituzte Sadarreko estadiotik, eta eraberritze lanen ondoren, eserleku berriak jarriko dituzte. Taxoarek besaulki horien zati bat bere zelaietan jarri du, baina eserleku horietako gehienak Osasunako klubarekin lankidetzan aritzen diren beste klubetan banatzen ari dira. Gehienak jasotzera joan dira dagoeneko, euren instalazioetan jartzeko.

Aoiz Kirol Elkarteak klub horietako bat da, eta San Migel Zelai Berriak zituen harmaila ia guztiak estali ditu. Asteburuko zaletuek erosoago gozatu ahal izango dute harmailetan besaulkiak jarrita, eta ez dira zementuaren gainean eseri behar izanen.

Harmailen zati batean zeuden eserlekuak laster jarriko dira kiroldegian.



## AGOIZKO UDALA EUSKAL JAI BERRI ERREMONTE FUNDAZIOKO KIDE EGIN DA

2009. urteaz geroztik, Agoizko Udalak Erremonte Fundazioarekin lankidetzan dihardu Nafarroako Erremonteko Foru Komunitateko Txapelketaren kanporaketa antolatzen. 2010etik aurrera, agoizko Udalarekin udal frontoiko kantxan doan erabiltzeko akordioa lortu ondoren, Erremonte Fundazioak erremonte eskola bat jarri zuen martxan, Agoizko Toki Eder pilotalekuan egoitza izango zuena.

2015etik aurrera, Agoizko Udalak eta Erremonte Fundazioak lankidetzan hitzarmen bat sinatu dute, eta, horren bidez, udalak dirupuru bat eman du, Agoizko Pilota Klubaren

erremonte-atala sustatzeko eta Agoitzen urtero jokatzeko den Nafarroako Erremonteko Foru Komunitatearen kanporaketa bat antolatu ahal izateko.

Udalak apustu argia egin du erremontearen proiektua herrian garatzeko eta zabaltzeko, eta horregatik sartu da Fundazioaren Patronatuan. Udalaren helburua da Erremonte Fundazioarekin lankidetzan aritzea, udalak dituen aukeren barruan, kirola zabaltzeko eta Agoitzen kirol jarduera garrantzitsua izaten jarrai dezan.